

HIZKUNTZAREN ERABILERA SEXISTA EKIDIN DADIN HARTUTAKO NEURRIEN ERAGINA

Tesiaren egilea: Eider Gogorza Ulazia

Unibertsitatea: Deustuko Unibertsitatea

Saila: Gizarte Zientziak

Tesi-zuzendaria: Iziar Basterretxea Moreno

Tesiaren laburpena:

Izenburuak adierazten duen bezala, tesia hizkuntzaren erabilera sexistaren gainekoa da. Zehazki, erabilera horrek batez ere euskal gizartean duen eragina ikusi nahi izan dugu. Horretarako, tesia bi ataletan banatu dugu: teorikoa eta enpirikoa.

Atal teorikoan, hizkuntzaren erabilera sexistatzat zer ulertzen den ikusi nahi izan dugu. Alde batetik, hizkuntzaren gaineko teoria ezberdinak ikusi ditugu: Semiologia, Estrukturalismoa, Gramatika Unibertsala, Ikuspegi Feminista... Eta, bestetik, gizarte-eredu ezberdinen gaineko teoria batzuk aztertu ditugu: Funtzionalismoa, Gatazkaren Teoria, Elkarrekintza Sinbolikoa, Teoria Feminista...

Teoria horiek guztiek lagunduko digute sexismoak hizkuntzan eta gizartean duen eragina ikusten. Baina elkarri eragiten ote diote? Zein neurritan? Guk hori aztertu nahi izan dugu. Sexismoa gizartean txertatuta baldin badago (indize guztien arabera, gizonen eta emakumeen artean oraindik ez baitago berdintasunik), hizkuntza ere, gizartearen zati den heinean, sexista izango da. Zein neurritan eragiten duen aztertu gura izan dugu, eta, geurera etorri, Euskal Herriko egoera ere ikusi nahi izan dugu, euskal emakumeen historia aztertuz. Benetakoa al da egozten zaien boterea? Horren eraginik ba al dago euskaran?

Atal enpirikoan, gizartea eta hizkuntza aztertu nahi izan ditugu. Horretarako, alde batetik, GGI (*Gender Gap Index*) indizea eredu hartuta, euskal gizartea azken hamar urteetan nola aldatu den ikusi nahi izan dugu. Beste aldetik, Euskal Herriko hainbat egunkari aztertuta, denbora-tarte horretan (10 urte), hizkuntzaren erabilera sexistari begira hizkuntza nola aldatu den, ezer aldatu bada, ikusi nahi izan dugu. Ikerketa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako egunkariaren gainean egin dugu.

Emaitzei begiratzen badiegu, gizarteko egoera aldatu dela esan genezake. Egunkariaren kasuan, gaur egungo hizkuntzaren erabilera sexistaren gaineko gidak begiratuta, euskaraz ez da aldaketarik nabari; sexismorik ere ez dugu aurkitu. Gaztelaniaren kasuan, egoerak zertxobait hobera egin badu ere datuek ez digute gizartean egin diren ahaleginen berri ematen.